

EHUko IKASLE KONTSEILUAK BERRETSI EGIN DU UNIBERTSITATE PUBLIKOAREN BALIOEN DEFENTSA, UNIBERTSITATE-INGURUNEAN GORROTO DISKURTSOEN AURKA

Unibertsitate publiko kritiko, plural eta gorroto-diskurtsorik gabeko baten alde egiten dugu, eskuin muturreko VOX alderdiak otsailaren 23an Arabako Campusetik gertu antolatu duen ekitaldi politikoaren aurrean.

Puede leer la nota en castellano [aquí](#)

Leioa, 2026ko otsailaren 23a – Euskal Herriko Unibertsitateko (EHU) Ikasle Kontseilua kezkatuta dago otsailaren 23rako 1981. urtean eman zen estatu-kolpearen 45. urteurrenaren harira, Arabako Campusetik gertu VOXek antolatu duen ekitaldiarekin. Udal-titulartasuneko gune batean egiten bada ere, leku hori EHUren instalazioetatik hurbil egoteak argi uzten du unibertsitate-komunitatea interpellatzeko eta zirikatzeke asmo argia dagoela.

Unibertsitatea ez da probokaziorako gunea, pentsamendu kritikorakoa baizik.

EHU ezagutza, eztabaida eta pentsamendu kritikorako espazioa da, eta hala izaten jarraitu behar du. Gure fakultateetatik hain hurbil muturreko ideologia duen halako ekitaldi bat egitea ezin da gertaera neutral gisa ulertu; gure ustez, ikasleekin konfrontazioa bilatzen duen estrategia baten parte da. Ikasle-komunitatea, askotan bidegabe kriminalizatu izan den arren, historikoki mobilizatua eta gizarte-kausa ugariarekin konprometitua egon da, ekitaldi honen izaera antidemokratikotik urrun.

EHUko Ikasle Kontseilutik azpimarratu nahi dugu unibertsitate publikoko ikasleak antolatzeko gaitasunagatik, kontzientzia kritikoagatik eta bere izaera aldarrikatzaileagatik bereizten direla. Hori guztia gure unibertsitateko aberastasun demokratikoaren, pluralismoaren eta askatasunaren parte da, eta parte-hartze politiko eta sozial legítimoaren adierazpen gisa ulertu behar da.

Edozein gorroto-diskurtsoren gaitzespena.

Irmoki gaitzesten dugu jatorriagatik, generoagatik, sexu-orientazioagatik, identitateagatik, erlijioagatik edo beste edozein baldintza pertsonal edo sozialengatik gorrotoa, diskriminazioa edo bazterketa sustatzen duen edozein diskurtso. Unibertsitate publikoa kide guztientzat espazio segurua izan behar da.

Gure ustez, ekitaldi honen ospakizunak, egun hauetan eta Campusaren inguruan, Campusetan defendatzen ditugun askatasun akademikoaren, bizikidetzaren eta aniztasunaren balioak aurrez aurre jartzen ditu zuzenean. Adierazpen-askatasuna ezin da erabili oinarritzko eskubideak ahultzen edo polarizazioa sustatzen duten mezuak legitimatzeko estaldura gisa.

Jarduera akademikoan izan dezakeen eraginaren inguruko kezka.

Halaber, kezkatuta gaude egoerak jarduera akademikoaren garapen normalean eragin ditzakeen nahasmenduengatik. Bereziki, prebentzio-neurri gisa klaseak online formatura jotzeak irakaskuntzaren kalitatean eta ikasleek presentzialki eta baldintza egokietan prestakuntza jasotzeko duten eskubidean eragin negatiboa izan dezakeela uste dugu.

Kalitate akademikoa ezin da kanpoko probokazio politikoen estrategien menpe egon. Presentzialtasuna eta jarduera akademikoaren normaltasuna bermatu behar dira, ahal den neurrian.

Erantzukizun instituzionalerako deia.

Errektoretza Taldeak zabaldutako komunikatua baloratzen dugu, dena den azpimarratzen dugu instituzio guztiek arduraz jokatu behar dutela, segurtasuna, bizikidetzeta eta unibertsitatearen funtzionamendu normala lehenetsiz.

Ikasle Kontseiluak berretsi egiten du unibertsitate publiko kritiko, plural eta demokratiko batekin duen konpromiso osoa. EHU eztabaida errespetutik eta zorroztasun akademikotik garatzen den espazioa izan behar da, eta ez probokazio kalkulatuaren eszenatoki.



IKASLE
KONTSEILUA
CONSEJO DE
ESTUDIANTES

Contacto:

ikasle.kontseilua@ehu.eus

94 601 2448

X: @IkasleKontseilu

Instagram: @ikaslekontseilu

Linkedin: www.linkedin.com/company/ikasle-kontseilua

www.ehu.eus/es/web/ikasle-kontseilua